

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1.sektorearen plan partzialaren hamargarren xedapen-aldaketa egiteko proiektua onestea, eta xedapen-aldaketa horri hasierako onespena ematea**

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko apirilaren 23an egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1.sektorearen plan partzialaren hamargarren xedapen-aldaketa egiteko proiektua onestea, C. G.d. S. P eta J. J. L. arkitektoek idatzia.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Zabalganeko Borinbizkarra 1. sektorearen plan partzialaren hamargarren xedapen-aldaketari, dosierrean jasotako proiektuaren arabera. Hasierako onspen hori ingurumen-txosten estrategikoaren emaitzen arabera izango da.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeit egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Behin betiko onetsi bitartean –edonola ere, gehienez ere urtebetez– aldaketa honek eragindako lursailen eremuan onartze-, baimen- eta lizentzia-ematea bertan behera uztea.

Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua– egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 23an

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**